

BERMEOKO KALEETAKO 2019. URTEKO JAIK FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ZEHATZAK

IN-E 180/04-19

UDAL SAILA:		KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA															
INSTRUKTOREA:	Susana Regidor (Kulturako teknikari-koordinatzailea)																
BALORAZIO BATZORDEA:	Kultura eta Hezkuntza Batzordea																
ERABAKIA HARTUKO DUEN ORGANOA:	Tokiko Gobernu Batzarra (TGB)																
DIRULAGUNTZAREN ATALA:	2019 urteko Bermeoko kaleetako jaiak ospatzeko, batez be, tradiziozko jaiak eta herritarren arteko bizikidetzeta bultzatzeko finantzatzeko programa																
KODEA:	KU 14-4																
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRUKOPURUA:	5.000 € (00400-33810-481.03.07)																
BERAU EZARRITA LORTU NAHI DIRAN HELBURU ETA ONDORIOAK:	<ul style="list-style-type: none"> • Udalaren 5. helburu estrategikoa: "Herritarrak kulturaren parte eta jabe izatea" <p>Dirulaguntza honegaz, Bermeoko herritarren partaidetza bultzatu nahi da eta ohiko diran kaleetako jaiak bultzatu.</p>																
EPEA:	<ol style="list-style-type: none"> 1. Eskariak aurkezteko epea, oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean <u>hasiko da</u>. 2. Eskariak aurkezteko epea, oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 15 egun naturaleko epean <u>amaituko da</u>. 3. Justifikazioa egiteko epea jaia egin eta gehienez hiru hileko epean izango da. Urritik aurrera egiten diran ekimenen kasuan, epe mugea 2020ko urtarrilaren 10a izango da. 																
BALORAZIO IRIZPIDE ZEHATZAK:	<table border="1"> <tbody> <tr> <td>Programatutako egitarauaren garrantzia kontuan hartuko da eta modu berezian baloratuko dira izaera tradizionala, herrikoia eta herrian sustraituta dagozan ekitaldiak eta jaiak badira</td> <td>30 puntura arte</td> </tr> <tr> <td>2 urtera arte</td> <td>5</td> </tr> <tr> <td>3 urtetik 14 urtera arte</td> <td>15</td> </tr> <tr> <td>15 urte baino gehiago</td> <td>30</td> </tr> <tr> <td>Programatutako ekitaldiek aurreko urtean izan daberen herritarren parte-hartzea</td> <td>20 puntura arte</td> </tr> <tr> <td>300 pertsonara arte</td> <td>10</td> </tr> <tr> <td>300 pertsonatik gora</td> <td>20</td> </tr> </tbody> </table>			Programatutako egitarauaren garrantzia kontuan hartuko da eta modu berezian baloratuko dira izaera tradizionala, herrikoia eta herrian sustraituta dagozan ekitaldiak eta jaiak badira	30 puntura arte	2 urtera arte	5	3 urtetik 14 urtera arte	15	15 urte baino gehiago	30	Programatutako ekitaldiek aurreko urtean izan daberen herritarren parte-hartzea	20 puntura arte	300 pertsonara arte	10	300 pertsonatik gora	20
Programatutako egitarauaren garrantzia kontuan hartuko da eta modu berezian baloratuko dira izaera tradizionala, herrikoia eta herrian sustraituta dagozan ekitaldiak eta jaiak badira	30 puntura arte																
2 urtera arte	5																
3 urtetik 14 urtera arte	15																
15 urte baino gehiago	30																
Programatutako ekitaldiek aurreko urtean izan daberen herritarren parte-hartzea	20 puntura arte																
300 pertsonara arte	10																
300 pertsonatik gora	20																

Programatutako ekitaldietan euskerearen erabilera	20 puntura arte
Ahozkoa	12
Idatzizkoa	8

Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoez, helburuez eta irizpideez bat etortzea	10 puntu
--	----------

Programaren interesa eta aniztasuna	10 puntura arte
Umeentzako ekitaldiak	5
Nagusientzako ekitaldiak	5

Norbere finantziatzea edo beste diru iturriak eukitea, udaleko dirulaguntzaz gain	10 puntura arte
Aurrekontuaren %5etik %20ra arte	5
Aurrekontuaren %20a baino gehiago	10

ESKATZAILEAK:

- a) Pertsona fisikoak eskatu ahal izango dau honek baldintzak beteten badauz: kaleko auzokide bat izatea, bere kaleko jai batzordearen izenean. Horretarako, ordezkariak justifikatzen dauan dokumentu bat aurkeztuko dau, auzokideen sinadurez.
- b) Edozein pertsona juridikok eskatu ahal izango dauz, honek baldintzak beteten badauz:
 - b.1.- Irabazi asmo bakoak izatea.
 - b.2.- Eusko Jaurlaritzako Alkarteen Erregistroan sartuta egotea.
 - b.3.- Egoitza Bermeon eukitea eta bere jarduerarik garrantzitsuenak herri honetan garatzea.
 - b.4.- Diru-laguntzea eskatzen dan egunean tokiko zerga zorrak ordainduta izatea. Bermeoko Udalak ziurtatuko dau puntu hau.
 - b.5.- Identifikazio fiskaleko kodea eukitea eta egunean egotea betebeharriskaletan eta Gizarte Segurantzari.

Kasu bietan, Bermeoko Udalak aurreko urtean diru-laguntzaren bat emon badeutso, dirulaguntza horren kontra egindako gastuak, ondo justifikatuta eukitea.

Kale bardineko eskaera bat baino gehiago jasoten bada, Udalak bakar bat onartuko dau.

DIRUZ LAGUN DAITEKEEN PROGRAMAREN AZALPENA:

Arlo honetako dirulaguntzak emongo dira honako gastu honek finantzatzeko: musika saioak, kultura arloko saioak, umeentzako ekitaldiak, azpiegitura, kaleak apaintzeko apaingarriak eta jai girotzeko beharritan, publizitatea, orogariak eta sariak. Jatorduak onartuko dira, beti be, aurrekontu osoaren % 25a baino gutxiago badira.

Ez dira finantzatzeko ondorengo gastuak: ostalaritzakoak, egonaldia, luxuzko gastuak, banku-interesak, administrazio-zigorak, merkatuko balioa balio altuagoak diran gastuak...

PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Dirulaguntzak emateko prozedura: Konkurrentzia lehiakorra.

- a) Pertsona fisikoen kasuan, eskatzailearen ordezkariak frogatzen dauan dokumentua aurkeztu behar da

b) Pertsona juridikoen kasuan, dokumentu honeek aurkeztu behar dira:

b.1.- IFKren fotokopia (aldez aurretik aurkeztu ez bada).

b.2.- Betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzaren egunean egotearen egiaztagiria. (Edo udalari baimena emon ziurtatzeko)

b.3.- 2019 urteko proiektua, jagokoen eranskinean zehaztuta.

b.4.- Alkarteko estatutuen fotokopiak, eta zuzendaritza batzordeko kideen izendapena eguneratuta, baldin eta lehenago aurkeztu ez badira Kultura eta Hezkuntza Sailean.

Kasu bietan, dirulaguntza eskaria Udaleko eranskinean aurkeztuko da, egoitza elektronikoan, Berhaz bulegoan edo Kultura eta Hezkuntza Sailean, datu guztiak ondo betetu ondoren.

Akatsak zuzentzeko epea

Dirulaguntza eskarian ez badira eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak 10 egun eukiko dauz akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen danetik kontatzen hasita. Denpora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko egiten jakola ulertuko da.

Diru-laguntzak emateko prozedura

- Dirulaguntza mota honeri aplikatu dakioken erregimena hau da: konkurrentzia.
- Konkurrentzia lehiakorra sistema erabiliko da, behin gitxienerako diru-kopurua lortuta, diru kopuru hori programa bakoitzean lortutako puntuazioari jagokoen porzentajea aplikatuta doitu da, taula honetan adierazita dagoen eran:

Programari emondako puntuak	Dirulaguntzaren %
86 puntu baino gehiago	Aurrekontuaren %100a arte
71etik 85 puntura bitartean	Aurrekontuaren % 90a arte
30etik 70 puntura bitartean	Aurrekontuaren % 80a arte

- Eskatzaile batek ezin izango dau 2.500 € baino gehiagorik jaso.
- Aurkeztutako proposamenek gitxienez, 30 puntu lortu beharko dabe dirulaguntza bat jasotzeko.

Dirulaguntzak ordaintzea

Bermeoko Udalak aurretiko ordainketak egingo dauz. Dirulaguntzearen %80a programa osoa burutu baino lehen ordainduko da eta dirulaguntzearen beste %20a, ekintza justifikatzen danean. Kontuan izan behar da, emondako kopuruak, justifikazioagaz batera berrikusiko dirala. Dirulaguntzea ondo justifikatzeko, eskaeran agertzen dan aurrekontuaren %100a fakturakaz justifikatu behar da, nahiz eta diru-laguntzearen kopurua txikiagoa izan.

Udalak justifikazioa ondo aztertuko dau eta halan bajagoko, dirulaguntzaren %20a, hau da, azken zatia ordainduko dau. Hasierako aurrekontua eta justifikatutako gastua gitxienez %80an bat etorri beharko dira, bestela, aurkeztutako justifikazioari jagokoen benetako diru-laguntza zein dan eskatzaileari azalduko jako eta beharrezkoa balitz, dirua itzultzeko eskatuko deutso.

Justifikazio txostenak Kultura eta Hezkuntza batzordeak aztertuko dauz.

Dirulaguntzearen onuradunen betebeharrak

1. Bermeon, paneletan ezin dira 40 kartel baino gehiago jarri. Hormatan be, ezin izango da kartelik jarri.
2. Udalari jakinarazotea beste dirulaguntza batzuk hartzen badauz eta honen zenbatekoa (danen artean ezin izango dira %100 baino handiagoak izan).

Dirulaguntzearen justifikazioa

1. Dirulaguntzearen onuradunak 2019. urteko dirulaguntzearen justifikazioa egin beharko dau, egoitza elektronikoa, Berhaz bulegoan edo Kultura eta Hezkuntza Sailean, Bermeoko Udaleko dirulaguntzen oinarri orokorren 17. artikuluan jasotzen dan moduan, jaia egin eta gehienez hiru hileko epean. Urritik aurrera egiten diran ekimeneen kasuan, epe mugea 2020ko urtarrilaren 10a izango da.
2. Justifikaziorik egiten ez danean edo egindako justifikazioa nahikoa ez danean, jasotako diru-kopurua itzuli egin beharko da, justifikatu ez dan zenbatekoaren proportzioan, berandutzeko interesakaz batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluko 1. idatz-zatian dagoan moduan.
3. Ebaluazio-memoria, Udaleko eranskinetako edukiaren arabera egingo da: egindako ekintzen garapena, partehartzaileak, balorazioa eta balantze ekonomiko osoa.
4. Ordaindutako faktura originalak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztuko dira. (Udaleko Berhaz bulegoan konpultsak egiten dira). Egiatzapena egin eta gero, originalak bueltatu egingo dira. Ez da onartuko beste gastu batzuen justifikaziorik, horreek ez badabe balio diru-laguntzearen helburuak lortzeko.
5. Fakturretan enpresaren izena, IFK edo IFZ, faktura zenbakia, data, kontzeptua, zenbatekoa, BEZa eta eskatzailearen datu fiskalak azaldu beharko dira.
6. Tiketak onartuko dira, beti be, datuak zehaturik agertzen badira eta justifikazio osoaren %25a baino ez badira. Autopistako tiketak, garraio publikoko tiketak eta aparkalekuetako tiketak onartuko dira, beti be, aurkeztutakoak helburuagaz bat datozenean.
7. Erabilitako publizitatea aurkeztu beharko da, aurretik ez bada aurkeztu. Horretan Bermeoko Udaleko logoa agertu beharko da.

Akatsak zuzentzeko epea

Justifikazioak ez badauz eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak 10 egun eukiko dauz akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen danetik kontatzen hasita.

PROGRAMA HAU EGITEKO AURREIKUS DAITEZKEEN KOSTUAK DIRUZ LAGUN DAITEZKEENAK:

JARRAIPEN ETA EBALUAKEARAKO ADIERAZLEAK:

- Gitxienez, herriko kale bitan jaiak egitea.
- Partehartzaile kopurua gitxienez 300 pertsona izatea, kale bakotxan.

HONAKIN LOTUTAKO

Diru-laguntza eskaera
Diru-laguntza justifikazioa

AGIRIAK:	
GENERO ERAGINA:	Bat ere ez
1/1982 LOaren arabera argitagarria ez den emakida:	Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzkoa. EZ